

Egan aldizkaria, bere bigarren aldian, berrogeigarren alera iritsi da. Euskal literatura historiarik arretzet begiratu beharra du gerraosteko ekintzen ekarrian. Garrantzi handikoa bai da aldizkari honen markatu duen bidea bere orrialdeetan hainbeste antzerki, olerki, ipui, saiara, hitzaldi, kritika eta abar bildu dituzte. Gainera, Egan-en hasierako historia oso bixta da, orainarteko kultur aldizkariagandik bestelakoa: elebitasuzen sortu zen 1948an eta bost urteren buruan euskarak gaina hartu zuen eta 1953. urtean euskarra hutsen argitaratzen da.

Real Sociedad Vascongada de Amigos del País izan zen sortzaile, bere Boletín-aren literatura eraskin bezala. Aditza edonaz, sortzaileen asmoetan zegoen euskarazko lanerik tokia eman nahia eta lehen ala haietan agertzen zaizkigu Gabriel Celaya, Javier Bengoechea, A. Bilbao Aristegui, M. Saenz de San Pedro, Jose Miguel de Azaola, M. Ciriquian-Gaiztarrak eta abar. Satarika, Manuel Lekuona, Salbatore Mitxelena eta beste zenbaiten artean. Euskarazko lan batzuk inork izenpetu gabe, zenbait idazle oraindik heldur zirenez beren buruak agertzeko.

1953an zenbait bakarra agertu zuten eta bera euskarra hutsen. A. Irigarayren lan bat zekarren Axularri buruz (Euskaltzaindiko 2. solas-aldian aurkeztua); Nemesio Etxaniz olerkiak, behar bada bere hobereenetakoa; eta, Antonio M. Labayenen hitzurrez, Lizardi zenak argitaratu gabe utzi zuen antzerkia, gure olerkari honen idatzi zuen antzerki bakarra: "Ezkundu ezin ziteken mutila".

Euskarra hutsen aldizkari bihurtu zena, bertan-behera erortzeko arriskoa ikusi zen nonbait, eta orduan oraindik sortu berri zen Diputazioari Urkio Mintegia jabetu zen bere idazkuntza, bigarren aldiari hasiera emanaz: "Asmo berri" zerituz atariko A. Arrue, A. Irigaray eta L. Mitxelena izenpetua zetozen. Berritzaiek bizkortu zuen aldizkaria. Egitura eman zitzaion, gaiak sailkatuz eta bakoitzari ardurak bananduz: sarrera gisa, gai garrantzikoaren bat, gehienetan pertsonaiaren bati buruz edo historiaren inguruan. Gero, olerki saila, Kontu kontari (prosa) literatura, ipuak eta kondairak. Liburuak satean argitaratu berri zirenen albiste eta aburu, Antzerki saila eta abar. Beste sail tipiko batzuk, Adabakirik zuzentzetaz eta kritikaz, Nahas mahas 1954tik 1977ra A. Irigarayren ardurapean irau duena eta Jan edanak A. Arrue zenaren ardurapean 1954tik 1975era arte, euskaraz gastronomiaz idatzi diren kapitulu-

rik ederrean, egilea hil ondorean izen horrikin liburua batean bildurik argitaratuak.

Bertako idazle eta irakurleentzat herbeste argitaratzen zen **Euzko-gogoa** baino egokiago zetozen, bai idatzi nahi zutenentzat eta bai irakurleentzat. Aukera horregatik idazlerik gehienak bere inguruan bildu zituzten.

Egan-ek izan duen alde ona, literatura gaiak soil-soilik erabiltzearena izan da. tartean bestelako ekintzak nahastu gabe, ezta euskararen aldeko proselitismoa ere, euskaraz literaturgintza eta kitto. Kritikak maiz erabili dira, baina horiek ere literaturari buruz eta inoiz filosofiazko kontzeptuetan. Beste gai berezi bat zinemari buruzko solasak izan ditu Egan-ek.

Aldizkari honen orrialdeetan gerraondoa izena hartzeraz heldu diren idazlerik gehienak kolaboratu dute. Eta, bere, idazkuntza arduradun izan diren Arrue, Irigaray eta Mitxelenez gainera, beste laguntzaile hurbilik ere izan du, urtean buruan isilik aritu direnak eta horien artean inor aipatzen ez den Julian Martinez izan da bat. R.S.V. de Amigos del País-en Boletín-aren batean hainbeste arduratu dena eta 1956ra arteko urte hauean José Uribe tolosarra izan du laguntzailearik bat. Besteok, ahal izan dugun neurrian lagundu, besterik ez.

Baina, ikus dezagun argitaratu berri den aleak zer eskaintzen digun. Urtu osoko ala bakarra dator. Ezinbestekoa iduritzen zitzaizkion Egan-en hainbeste lan argitaratu zuen Nikolas Alzola zenari zerbaiz eskaintzea eta hortik hasten da. 1956ra arteko Egan aurkibideak egin zituen Nikolasek, jarraipenez nobai arduratuko zen ustez, zeren gure literaturak hor bai du bere almagentarik bat, eta ez tipena.

Gabriel Aresti zenak ere, bere ipui eta antzerkiak ez ezik poesiarik auki aldizkari hontan argitaratu zituen, besteak beste "Bizkaitarra" zerituz poema. Oraingo hontan, bizi zela ber berek atondu zuen "Antologia laburra" dator, neronen oharrez. Egilearen aburuz gogozkoen zituen poesia biltzeaz aparte, badira bertan zenbait poesi inoiz argitaratu gabeak ere, eta zenbait ohari jarri zirkulari **Obra guzikiak** (1976) delakoaren osagarri.

## Egan

Lehen ere eresi zaharrez aldizkari berean hainbeste lan argitaratu dituen Yon Etxaide Itharrek "Lehenengo euskal-olerki sariketa Urruñan" (A.D. Abbadie-ek 1853an antolatua) saio ederra eskaintzen digu.

Olerki sailan, Nemesio Etxanizen argitaratu gabe bat eta Luis Mari Mujika langile bikainak bere azken ahalaginko "Izanaren oihaletan" poema. Otsalarrek bere agerpena eta galegoz XIII. mendean idatzi zen "Cantiga de Meandriño" euskaratua. Gazte berrien emaitzatik, Remi Larrañagaren "Nebulae". Hala ere, azken zenbait hontan, prosazko lanak aipamen bereziki meretzidute. Besteak beste, hori daude Asun Landa eta Iñaki Sarasua ahurutzeko idatzi zituzten lan sarituak beste zenbait lan. Unamuno eta euskarari buruz, ez lehen eta ezta azken ere seguru asko, neronek aspaldi prestatu zuen saiara. Zubikarri Ondaroko deituzten ikerketa interesgarri bat eta abar.

Zenbait horren azken partean, antzerkiak: A. Campion-en **Pedro Mari**, Yon Etxaidek bigarrenez hobekuntza izokibatua; Daniel Landart-en **Xuri gorriak eta...** eta azkenik Henrik Ibsen-en **Andere etxear**ren jarraipena eta bukarera, Jose Agirrek euskaratua.

Bikaina da benetan gogetahamabost urteren buruan Egan aldiakariak bete duen lana. Hala ere, nere ustez zintzoan, 1954ko "Asmo berri" harek, gaur egun eskari arabera jartzeko, bere eskaintza gaurkotuz berrietzeko, ez ote du idazkuntza berri baten premia? Hori bai, bide beretik, jarraituaz, literaturgintza soil soilik, inokatu talderik eta planfletotasiunik gabe, iraupena izan dezan. Hortarako premia gorrak nabari bai da.

JUAN SAN MARTIN

Ha salido a la luz el volumen que hace el número 40 de la revista literaria Egan, correspondiente a los números 1-6 de 1982 y que viene a alcanzar las 335 páginas.

Egan, además de ser la revista en vascuence de mayor duración en la historia de la literatura vasca, tiene en su haber el caso insolito de comenzar siendo bilingüe y quedar absorbido totalmente por el euskara. Pero, según tengo entendido, fue intencional por parte de la entidad fundadora, la Real Sociedad Vascongada

de los Amigos del País, que creó como momento literario de su Boletín. Comenzó a publicarse en 1948 y desde 1953 sale exclusivamente en vascuence. Y, desde 1954 la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País, tras el fallecimiento de Arri, el número 2-4 de 1954, suscrita por Arri, A. Irigaray y L. Mitxelena, y con ideas verdaderas aún hoy viene a resultar bastante con tal de renovar el equipo de redacción. Y ello habría que realizarlo sin que ninguno de los que están, porque han merecido gran mérito, en un país como el nuestro, mantenga una línea eminentemente política, porque supieron estructurar bien la publicación en secciones y responsabilidades, con la introducción de personajes o temas en conexión con la historia y a las artes, poesía, cuentos, traducciones, ensayos, comentario de libros literarios, teatro etc. Dicha renovación que venir incorporando dos o tres escritores venes en su equipo de redacción. Como en todo momento han estado abiertas las puertas para quien ha querido colaborar, y en el caso de algunos, entre los que me interesa citar, aportamos cuanto hemos podido para el sostenimiento de la publicación, con el consentimiento de lo que ello viene a repercutir en el rollo de la literatura en vascuence.

El presente número viene a ser una muestra más de su valor literario. Comienza con un acuerdo a Nicolás A zola (Hernani con Manuel Cendamo y Echeberria), que tanto colaboró en vida y que publicó los índices de la revista hasta 1952. Otro asiduo colaborador en vida, fue Pedro Mari Aresti, quien publicó muchos de sus poemas prácticamente la totalidad de su obra en cuantos, ahora se publica su breve obra poética, que preparó el mismo y en la que se recogen algunas poetas inéditas, con prólogo y notas del que suscribe. Un estudio de Echaide sobre el primer concurso de poesía organizado por D'Abbadie. Varios poemas que destacan las de Luis M. Mujika y que se extiende. La sección de cuentos viene encabezada por los premios "Lizardi" (1982) de Sarasua respectivamente. Un poema de Unamuno y el País Vasco, que suscribe. Más otros trabajos y comentarios de libros, y en la parte final tres piezas de Pedro Mari de A. Campión en la memoria de Y. Echaide; Xuri gorriak eta... de Landart; más la continuación y final de Andere etxear (La casa de las muñecas) vertido por José Aguirre.

## Joseba Olaizola (I)

Aurten euskal musikaririk handi bat gogoratzeko beharrenez gaude musikazale eta euskaldun guztio. Urtarrilaren 27an bete baitira ehun urte Joseba Olaizola Gabarain Hernanin jaio zenetik. Idazle, organulari, musikagile ekintzetan, euskarra eta euskal gogoa erabili zuen bere bihotzean Olaizola jaunak eta, 86 urteko bizitza mistiko eta luze baten barnean zeukan euskal izpiriturik hori eman zigun oparu musikaren bitartez.

Donostiako Kojuaren ezagutu nuen bazkal ordu baten gizon apal eta txukun eta eta gezotzik harreman hestak izan nituen berarekin. Badituzterak neri idatzitako gutun samur eta bihozkorrak, euskal artistaren arima zabaltzen zizkidatenaik eta, egia esan, bere ondorengoak ez banituen ezagutu, praila mistiko bat zela esango nuen begirada sarkor eta kokospeko zuriz apaindua zen gizon hura.

Etxean xurgatu zuen Josebak euskal sen hori eta berdin esan beharko genuke bere anaia zen Gabierel abeslariagatik. Olaizolairen gutun luze baten berri eman nuen bera hil ondoren (BRSBP. 1969, II-III, 439-433 orr.) musikaririk honen euskal gogo hori adierazteko asmoetan. Bertan esaten zidanez, ama eta lau nebak bertolarik ziren, eta hainbat bertso doinu entzun zituen txikitzen etxean sukotuz. Bertsolari eta txistulari doinuk elikatuz zuten gure Olaizola haurraren arima, eta gero Katarro, Jose Bernardo, Udaregi, Pello Errota, Txirritia, Olegario etabar bertsolari hainbat saioretan entzun zituen. Beraz, euskal musikaren oinarri diren zutabeak ondo finkatuak zeukan bihotzean. Benetako euskal musikueen familia izango zen Olaizola-tarrena: aipatu dugun Gabierel kantu munduan txertatu bazen. Juan, nagusia, eta Felix hirugarrena, txistulari izango ziren. Juan anaia nagusi hori urte askotan Teodoro Erasunk Hernaniko txistulariarekin ibiliko zen banda osatuz.

Josebak Manuel Zendoiarekin egin zituen lehen ikasketak Hernanin eta 16 urte zituelarik, 1899.eko Urriaren 5an, Donostiako Musika Akademian ikasketak hobetzeko diru la-

guntza bat lortu zuen. Hiru ikastarotan (1899-1902) bukatzen ditu organo eta harmonia ikasketak Bonifazio eta Jose Maria Etxeberria, German Zendoia eta KlAUDIO Jauregi irakasle direlarik. Eta Akademiko La Coral abesbatza sortzen denean, han dugu Joseba Olaizola solfaketa irakasle eta piano laguntzaile. Sekundino Esnaolak **Orfeo Donostiarra** sortu zenean, lehenbizitako piano laguntzaile gure Olaizola izan zen. Gaztaroen Pepe Agesta **Luxemendirekin batera** **Gazte Jentea** Kultur Elkargoa sortu zuen Hernanin.

1904an hartuko du Joseba Olaizolak bizitza guztian izango duen bizibizita: Donostiako kaltetako San Pedro Parrokia emongo ditu bere organulari lehen urteak. Noizean behin, Jose Antonio Santesteban organulariaren hutsuneak betetzen ditu Andrea Mari Basilikan eta 1906.eko Urriaren 11an lortzen du bere biziko ametsa: Buenaventura Zapirain eta Juan Maria Ugarte garaitzen ditu Andrea Mariako organularitza betetzeko lehiaketan bera hautatzen dutenean. Hogeitahiru urte ditu gure organulari gabe berriak.

Isileko lanean dabil gure organularia. Baina hurrengo Andrea Mari jaiterako zozer asmatzen ari da. Eta bezerako **Salve** ospatu ondoren aho zabalik uzten ditu entzuleak abesbatz, organo eta orkestarako **Assumpta est Maria** zuzentzen duenean. Remigio Peña baritonak abestu zuen bakarlariaren partitura eta Zuaznabartarrak zuden orkestarako artean, Bainaentzulen eriztuzten txalagarria izan bazen musikalarik hau, Aita Otañok akats batzu ahartu zizkion liturgi aldetik Musika Sacro-Hispana aldizkarian argitaratu eman zuen kritika batetan. Apalki onartu zituen Olaizolak egindako oharrak eta aldatzeko egin ondoren 1908.eko Andrea Marietan berri adierazi zuen bere lana, oraingoan Nemesio Otañok berak zuzendua eta Julio Valdes organulari zelarrik.

Joxe Mari Usandizagak burutu ditu ordu-rako bere ikasketak Parisen eta Donostiako musika giroan berri sartzen denean, Olaizola izango da lagunarteko bat. Gero **Mendi Men-**

diyan opera osatzeko sartuko duen zati bat **Ave Maria** famatua da eta Olaizola izango da lehendabiziko organo laguntzailea. Aita Donostiak ere estimatzen zuen Olaizola musikari eta adiskide bezala eta hor dugu lekuko organulariari zuzendutako lantxo hau: **Bi Gabon abestiak** (1911).

Euskarra eta musika dira Olaizola arduratzen duten arazoak. Baina ahaztu ezin duena zera da: euskal idazle izan arren, bere musika dela, eta **Gipuzkoarra** eta **Euskal-Eria** aldezkerietan idazten dituen euskal lanak izenpetzeko **Eresolari** izenordea erabiliko du Joseba Olaizolak. **Bizi modu berriya** da idazten duen lehen antzerkitxo (1906). Gero etorriko dira **Markesaren alaba** 1908.eko Abenduaren 21an lehenbizitako aurkeztutako dena, **Inglesaren euritakoa**, Hernanin 1909an azalduko dena eta Abelino Barriolarekin batera idatzitako **Zori gaiztoko eguna**, 1912.eko Apirilaren 14an Donostiako Printzipal Antzokian aurkeztutako dena. Urte honen Azaroan Barcelonan antolatzen zen Eleiz Musikako Kongresora joan zen Olaizola.

**Jose Antonio ARANA MARTIJA** Celebramos este año el centenario de un gran músico vasco, José Olaizola Gabarain, nacido en Hernani el 27 de Enero de 1883. Escritor, organista y compositor, llenó de espíritu vasco toda su larga vida de 86 años.

Conoci hace años a Olaizola en el restaurante **Koju** de San Sebastián y desde entonces tuve estrechas relaciones con quien me favoreció con íntima correspondencia. Si no conociera a su descendencia podría pensar que, tras aquella perilla blanca y ojos penetrantes, se escondía el alma de un místico fraile.

Mamá en casa ese espíritu vasco, pues no en vano su madre y cuatro hermanos de ésta eran bertsolari. En las melodías de éstos y en las de los txistulari - a mi modo de ver dos columnas de la música vasca - basó Olaizola su primera y definitiva formación musical. Su hermano Gabriel, cantante, y sus dos hermanos Juan y Félix, txistulari, completaban una verdadera familia de músicos vascos.